

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak dira, enpresa batek bere negozio-eredua jarrai dezan egin behar dituen jarduera garrantzitsuenak.

Gure enpresak kalitatezko eta jatorri jasangarriko produktuen prestakuntzan eta hauen salmentan jardungo du. Horrez gain, denda funtzioa ere baduenez, inolako prozesurik jasan ez duen produktu gordinak ere salduko dira. Bestalde, salmentan jarduten duen edozein dendaren funtzio berdinak bete beharko ditu, hau da, lokala modu egoki batean mantendu. Azkenik, esan daiteke ekologiarekin duen konpromisoaren ondorioz, gure enpresa birziklatzearen edo plastikoaren erabilera gutxitzearen alde egongo dela. Horretarako, plastikorik gabeko poltsak eskainiko ditugu baita soberakinak laguntza-erakundeei eman ere.

Ondorioz, gure enpresak jabetxe eta denda batek aurrera eramaten dituen jarduerak egingo ditu. Horren bidez lortuko da bezeroek daukaten beharra asetzeara.

